

## **'GUREAK LABEA' PRODUKTUAK MERKATURATZEN HASI DA EROSKI NAFARROAN: DIBERTSITATE FUNTZIONALA DUTENEK EGINAK, INKLUSIO SOZIOLABORALA SUSTATZEKO**

- **Gozogintzako produktuen lerro hori Gureak taldearen Gipuzkoako lantegi batean egiten dute. Enpresa talde horren helburua da lan aukerak sorraraztea eta desgaitasuna dutenen inklusio soziolaborala bultzatzea.**
- **Nafarroako 94 saltokitan egonen dira salgai, Aragoiko 65etan eta EAeko 140tan baino gehiagotan.**
- **Bi erakundeen lankidetzaren parte da merkaturatze hitzarmena. Elkarlan horretatik sortu dira lan prestakuntzarako egiazko esperientziak, enpleguak eta dibertsitate funtzionala dutenek osorik kudeatutako supermerkatu eredu bat.**

**Elorrio, 2026ko ekainaren 17a.-** [EROSKI](#) eta Gureak taldea –euskal enpresa bat arduratzen dena lan aukera sorrarazteaz eta inklusio soziolaborala bultzatzeaz desgaitasuna dutenentzat– akordio batera iritsi dira gozogintzako produktu lerro bat merkaturatzeko marka propioarekin. GUREAK Labea izenarekin atera berri du taldeak. Nafarroan, zehazki 94 saltokitan egonen da salgai.

GUREAK taldearekin dagoen elkarlanetik atera da hitzarmen hau. 2015ean hasi ziren elkarrekin, osorik desgaitasuna dutenek osatutako Espainiako lehen supermerkatua irekita. Ordutik, harremana indartu eta ugaritu egin da; esaterako, harremanaren ondorio dira egiazko lan inguruneetan lanerako prestakuntza ematea, EROSKIren dendetarako langileak kontratatzea eta frankizia erako EROSKI City denda berriak irekitzea EAEn, osorik dibertsitate funtzionala dutenek kudeatuak. GUREAK Labeak mugarría ezarri du itun honetan, eta, iragartzen dutenez, luze gabe lankidetzaren arlo berriak etorriko dira.

*"Eroskin, gure izaera kooperatiboa dela medio, konprometituta gaude ingurunearekin eta gizartean inpaktu positiboa eratzearekin. Beraz, Gureak taldearekin dugun lotura era naturalean gertatu da; izan ere, balio berdinak ditugu dibertsitatearen, ekitatearen eta inklusioaren aldetik",* adierazi du **Irene Mateok, EROSKIren Harreman Instituzionalerako arduradunak**. Eta zehaztu du: *"Oraingo honetan, gainera, ingurunearekin eta tokiko produktuarekin dugun konpromisoari jarraituz, errezeta perfektua aurkitu dugu Eroskik modu aktiboan parte hartu duen proiektu honetan; izan ere, produktu bakun hau izaten ahalko dugu gure dendetan, zeinaren sekretua inklusioa baita. Zinez harro gaude horrekin".*

---

**EROSKI - Dirección de Comunicación**

**Corporativa**

Patricia Martín Sanchidrián

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**INCÓGNITO - Agencia de Prensa**

Silvia Peralta

Tel: 917 379 950

Maiatzaz geroztik, GUREAK Labearen galletak eta mojikoia eskura daude EAeko, Nafarroako eta Aragoiko 300 supermerkatu baino gehiagotan. Produktuak Errenteriko lantegi batean egiten dituzte (Gipuzkoan), eta dibertsitate funtzionala duten 36 laguneko taldea dute, horietatik hogeita hamar laguntza premia handiagoa dutenak, gehienak desgaitasun intelektuala dutenak edo osasun mentaleko arazoak dituztenak.

Eroski giltzarri izan da proiektu hori posible egiteko; izan ere, era aktiboan parte hartu du produktuaren diseinuan eta merkaturaketan.

Produktu horrek, merkatura aterata, mugarrira ezarri du Gureak euskal taldean, 50 urtean lehen aldiz produktu propioen lerro bat merkaturatu baitu.

### **Produktu lerroa**

Gaur egun, lehen produktu gama bat merkaturatzen du Eroskik: gurinezko galletak chiarekin eta almendrekin, gurinezko galleta arrosak txokolatearekin eta mojikoia, naturalak zein txokolatedunak. Eskaintzaren osagarri, badira txokolatezko cookieak, zereal askotako galletak eta osoko irinarekin egindako mojikoia. Era berean, produktu berriak garatzeko lanean ari dira.

### **EROSKiri buruz**

EROSKI banaketa talde liderretako bat da Espainia iparraldeko merkatuan —Galiziatik Balearretara—, %12,32ko merkatu kuotarekin; eta liderra da Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Galizian; lidergoan da halaber Balearretan ere. 2025aren amaieran, 1.508 saltoki zituen bere sare komertzialean: besteak beste, supermerkatuak, hipermerkatuak, cash & carry-ak eta online supermerkatuak, baita gasolindegia, kirol dendak eta elikagaien arlokoak ez diren beste negozio batzuk ere. Horretaz gainera, 6 milioi Bezero Bazkide baino gehiago ditu, eta 28.000 lagunek baino gehiago osatzen dute langile taldea; horietatik 8.300, berriz, bazkide eta jabe dira.

### **Gureak taldeari buruz**

Ekonomia sozialeko enpresa bat da Gureak, helburu duena lan aukerak sorraraztea eta desgaitasuna dutenen inklusio soziolaborala indartzea. Gaur egun 6.000 lagunetik gorako talde bat du, eta eskakizun zorrotzeko merkatuetan ari da, hala nola autogintzan, mugikortasunean, elikaduran, arlo soziosanitarioan eta datuen kudeaketa eta komunikazioetan.

---

**EROSKI - Dirección de Comunicación**

**Corporativa**

Patricia Martín Sanchidrián

**Tel: 946 211 214**

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**INCÓGNITO - Agencia de Prensa**

Silvia Peralta

**Tel: 917 379 950**